

I+Gko jardueri buruzko estatistika
2022. urtea. Behin betiko datuak.

Barneko I+Gko gastua 409,9 milioi eurokoa izan da 2022. urtean

2024ko urtarrilaren 22a

Nafarroa barneko I+Gko jardueretan biztanleko gasturik handiena duen laugarren autonomia-erkidegoa da, Estatuko batezbestekoaren gainetik

BARNEKO I+G-KO GASTUA

Guztira. 2022. urtean, Ikerketa eta Garapeneko (I+G) barne-gastua 409,9 milioi eurokoa izan da Nafarroan, eta, beraz, % 5,1eko igoera izan da 2021. urtearekin alderatuta, eta 1,8koa, Nafarroako BPGd-aren gainean¹.

Egikaritze-sektoreak. *Enpresen* sektoreak izan du I+Gko guztizko gastuaren ehunekorik handiena (% 66,0), eta haren atzetik, garrantziaren arabera, *Goi-mailako irakaskuntza eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak* biltzen dituen sektorea (% 24,8) eta *Administrazio publikoen* I+Gko gastua (guztizko gastuaren % 9,2) kokatu dira.

Hiru sektoreek handitu dute barneko I+Gko jardueretako gastua: igoerarik handiena, % 6,1ekoa, *Enpresen* sektoreak izan du, eta, haren atzetik, *Goi-mailako irakaskuntza eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak* biltzen dituen sektorea eta *Administrazio publikoen* sektorea kokatu dira (% 4,1eko eta % 0,8ko igoerarekin, hurrenez hurren).

Autonomia-erkidegoak. Barneko I+Gko jardueretan biztanleko gasturik handiena izan duten autonomia-erkidegoak honako hauek dira: EAE (798,9 euro), Madrilgo Erkidegoa (749,1 euro), Katalunia (611,3 euro) eta Nafarroako Foru Komunitatea (610,1 euro). Erkidego horiek izan dira I+Gko gastuan Estatuko batezbestekoa (402,2 euro) baino intentsitate-zifra handiagoak izan dituzten bakarrak.

Espainia. 2022. urtean, Ikerketa eta Garapeneko (I+G) barne-gastua 19.325 milioi eurora iritsi da (aurreko urtean baino % 12,0 handiagoa izan da), eta BPGd-aren % 1,44 izan da (% 1,41 2021. urtean).

¹ Nafarroako BPGd-aren datua, INEk argitaratutako Espainiako Eskualde Kontabilitatearen arabera.



1. TAULA

I+Gko barne-gastuak, guztira, autonomia-erkidegoen arabera. 2022. urtea.

ERKIDEGOAK	Barne-gastuak (mila euro)	Aldakuntza- tasa (%) 2022/2021	Gastua biztanleko (euro)
Andaluzia	1.890.566	11,0	220,5
Aragoi	447.121	15,6	331,4
Asturiasko Printzerria	217.867	6,6	216,5
Balear Uharteak	164.211	12,4	136,0
Kanariak	271.596	13,9	122,8
Kantabria	138.479	4,0	235,4
Gaztela eta Leon	866.999	8,9	364,0
Gaztela-Mantxa	313.897	-7,6	150,9
Katalunia	4.827.232	18,2	611,3
Valentziako Erkidegoa	1.485.293	9,7	284,8
Extremadura	158.054	6,0	149,9
Galizia	751.045	8,1	278,3
Madrilgo Erkidegoa	5.130.046	13,0	749,1
Murtziako Eskualdea	387.214	10,2	249,5
Nafarroako Foru Komunitatea	409.931	5,1	610,1
EAE	1.772.820	6,4	798,9
Errioxa	82.328	26,7	255,4
Ceuta	3.992	10,3	48,2
Melilla	6.064	8,5	70,8
GUZTIRA	19.324.755	12,0	402,2

Iturria: Geuk egina, I+Gko jardueri buruzko Estatistikan (INE) oinarrituta.

2. TAULA

I+Gko barne-gastuak, guztira, egikaritze-sektoreen arabera.

	2022ko barne- gastuak (mila euro)	2021eko barne- gastuak (mila euro)	Aldakuntza 2022/2021 (%)	Guztizkoar en %
NAFARROAKO SEKTOREAK, GUZTIRA	409.931	390.206	5,1	
Enpresen sektorea	270.607	255.164	6,1	66,0
Adm. publikoen sektorea	37.844	37.546	0,8	9,2
Unibertsitateak eta IAGEP *	101.480	97.495	4,1	24,8
SEKTOREAK, GUZTIRA. ESPAINIA	19.324.755	17.249.250	12,0	
Enpresen sektorea	10.901.728	9.696.150	12,4	56,4
Adm. publikoen sektorea	3.329.694	2.910.025	14,4	17,2
Unibertsitateak	5.026.022	4.586.993	9,6	26,0
EAGEP	67.311	56.081	20,0	0,3

Iturria: Geuk egina, I+Gko jardueri buruzko Estatistikan (INE) oinarrituta.

* Unibertsitateen eta Irabazi Asmorik Gabeko Erakunde Pribatuena datuak ezin dira bereiz eman, estatistika-sektorea dela eta.



BARNEKO I+G-KO LANGILEAK

Guztira. Nafarroan I+Gko jardueretan lanaldi osoko baliokidetzan jardun duten langileen kopurua % 0,9 igo da, aurreko urtearekin alderatuta. Hala, 2022an, guztira 5.346 pertsonak jardun dute I+Gko jardueretan, lanaldi osoko baliokidetzan, eta landunen milako 18,3 izan dira. Espainia osoko langile guztien (lanaldi osoko baliokidetzan) % 2,0 izan dira.

Ikertzaileen kolektiboan, 3.264 pertsona izan dira; alegia, aurreko urtean baino % 3,2 gehiago, eta landunen milako 11,2.

Emakumeak I+Gko jardueretako langileen % 39,9 izan dira. I+Gko jardueretan emakumeen parte-hartzearen ehunekorik handiena izan duen sektorea Administrazio Publikoarena izan da (% 52,7). Enpresen sektorean, ehuneko hori % 31,6ra iritsi da.

Espainia. 2022an I+Gko jardueretan lanaldi osoko baliokidetzan jardun duten langileen guztizko kopurua 263.407 izan da (landunen milako 12,9), hau da, % 5,6ko igoera izan du, aurreko urtearekin alderatuta. Guztizko kopuru horretatik, 161.751 pertsona (landunen milako 7,9) ikertzaileen kolektibokoak izan dira, hau da, 2021ean baino % 4,9 gehiago.

3. TAULA

I+Gko langileak, lanaldi osoko baliokidetzan, egikaritze-sektorearen arabera.

	I+Gko langileak, guztira 2022	Ikertzaileak guztira 2022	I+Gko langileak, guztira. 2021	Ikertzaileak, guztira. 2021	Aldakuntza 2022/2021 Langileak, guztira	Aldakuntza 2022/2021 Ikertzaileak, guztira
NAFARROAKO SEKTOREAK, GUZTIRA	5.346	3.264	5.300	3.163	0,9	3,2
Enpresen sektorea	3.033	1.449	2.968	1.340	2,2	8,1
Adm. publikoen sektorea	474	281	507	298	-6,6	-5,6
Unibertsitateak eta IAGEP *	1.840	1.535	1.826	1.526	0,7	0,6
SEKTOREAK, GUZTIRA. ESPAINIA	263.407	161.751	249.474	154.125	5,6	4,9
Enpresen sektorea	125.529	64.912	116.465	60.374	7,8	7,5
Adm. publikoen sektorea	44.958	23.742	44.147	23.418	1,8	1,4
Unibertsitateak	92.031	72.568	88.227	69.984	4,3	3,7
IAGEP	889	529	634	349	40,1	51,5

Iturria: Geuk egina, I+Gko jardueri buruzko Estatistikan (INE) oinarrituta.

* Unibertsitateen eta Irabazi Asmorik Gabeko Erakunde Pribatuaren datuak ezin dira bereiz eman, estatistika-sekretua dela eta.



CONTACTO I HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00

4. TAULA

I+Gko langileak, lanaldi osoko baliokidetzan, egikaritze-sektorearen eta sexuaren arabera. 2022. urtea.

	I+Gko langileak, guztira	I+Gko langileak, guztira (emakumeak)	Ikertzail eak, guztira	Ikertzaileak, guztira (emakumeak)	Emakume en %, langile guztien gainean	Emakume en %, ikertzaile guztien gainean
NAFARROAKO SEKTOREAK, GUZTIRA	5.346	2.134	3.264	1.325	39,9	40,6
Enpresen sektorea	3.033	958	1.449	465	31,6	32,1
Adm. publikoen sektorea	474	250	281	139	52,7	49,4
Unibertsitateak eta IAGEP *	1.840	927	1.535	721	50,4	47,0
SEKTOREAK, GUZTIRA. ESPAINIA	263.407	107.397	161.751	63.990	40,8	39,6
Enpresen sektorea	125.529	39.630	64.912	20.117	31,6	31,0
Adm. publikoen sektorea	44.958	24.497	23.742	12.009	54,5	50,6
Unibertsitateak	92.031	42.814	72.568	31.596	46,5	43,5
IAGEP	889	456	529	268	51,3	50,7

Iturria: Geuk egina, I+Gko jardueri buruzko Estatistikan (INE) oinarrituta.

* Unibertsitateen eta Irabazi Asmorik Gabeko Erakunde Pribatuena datuak ezin dira bereiz eman, estatistika-sekretua dela eta.





OHAR METODOLOGIKOA

Zientzia-ikerketako eta teknologia-garapeneko (I+G) jardueri buruzko Estatistikaren helburu nagusia da ekonomiaren sektore ekonomiko guztiek (enpresak, administrazio publikoak, goi-irakaskuntza eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak) ikerketara bideratzen dituzten ekonomia eta giza baliabideak neurtzea. Neurketa horren xedea honako hau da:

- Zientzia-politika nazionalaren kudeaketa-, plangintza-, erabaki- eta kontrol-tresna bat ematea.
- Estatistika-erakundeei eskatzen duten informazioa ematea; hura, nazioarteko arauen arabera eskuratzen da, eta, hala, herrialdeen arteko erkaketak egiteko aukera dago.

Inkesta mota: jarraitua, urtean behingoa.

Biztanle-eremua: I+Gko jarduerak egiten dituzten enpresak, erakunde publikoak, unibertsitateak eta goi-irakaskuntzako zentroak eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak.

Aidaketa metodologikoa: Europako Estatistika Sistemarekin bat etorriz, estatistika honek, enpresen sektorean eta 2021. urteko erreferentziazko datuetan oinarrituta, enpresaren estatistika-kontzeptu berria ezarri du; hari jarraikiz, lege-unitatearekin, enpresa taldearekin edo enpresa talde bateko zati batekin bat egin dezake. Hori dela eta, enpresen sektoreko eragiketaren emaitzak eta jardueren araberrako banaketa eraginpean daude eta ez dira aurreko urteetan lege-unitatean oinarritutakoekin erkagarriak.

Esparru geografikoa: lurralde nazional osoa.

Emaitzak zer eperi dagozkion: datuen bilketa-urtearen aurreko urtea.

Informazioa zer eperi dagokion: gastuen kasuan, urte naturala; langileen kasuan, urteko batezbestekoa eta lanaldi osoko baliokidetzak (pertsonek urtean).

Laginaren tamaina: 45.000 enpresa, administrazio publikoko 557 zentro (ospitale publikoak barne), 86 unibertsitate, goi-irakaskuntzako 109 zentro eta irabazi-asmorik gabeko 172 erakunde pribatu, Espainia osoan.

Laginketa mota: zehatza direktorioko unitateetarako eta jaso ez diren enpresen ausazko laginetaren bidez.

Biltzeko metodoa: sistema mistoa, posta bidezko bidalketen eta elkarrizketatzaileen parte-hartzearen bidez.



INFORMAZIO GEHIAGO

Nastat

I+Gko jardueri buruzko Estatistika.



CONTACTO I HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00